

Juan Antonio Urbeltz

**Juan Antonio Urbeltz Navarro Iruñean jaio bazen ere txikitatik Donostian** bizi da. Goizaldi taldean dantzatzen hasi, eta 1965. urtean Argia taldean euskal folkloreak inguruko lanari ekin zion. Bertan, apurka-apurka ondare aparta osatzen joango diren hamaika dantza eta melodia bildu ditu. Euskal Herriko folklore-dialektoei eskainitako programa monografikoen inguruan, bostehun melodia baino gehiago erakutsi dira. Euskal kultur tradizionalaren jarraipenerako egindako ekarpenetan jantziak, instrumentuak, forma orkestralak eta koreografiak berreskuratu dira. Funtsezko ekarpena lan-mota diferenteetan egindakoa, 1978an Euskadiko Kutxak editatutako *Dantzak* liburutik hasi eta hamaika hitzaldi, irrati-programa, egunkarietako artikulu, disko-edizio eta abar arte.

1988an *Zortziko* ikuskizuna estreinatu zuen; 1989an berriz *Muriska* baleta bertan sartu ondoren, ikuskizunak *Alakiketan* izena hartu zuen. Urte berean, ***Música Militar en el País Vasco – El Problema del zortziko*** izeneko liburua argitaratu zuen. 1994an *Bailar el Caos – La danza de la osa y el soldado cojo* argitaratu zuen, eta 1995ean *Alardeak* monografikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak editatutako *Bertan* bildumaren 8. koadernoan. 2000ean *Los bailes de espadas y sus simbolos – Cienagas, insectos y "moros"* eta 2001ean Euskal Herri enblematikoa bildumaren barruan –*Euskal dantza ; sinboloen inguruan*-.

J.A. Urbeltz *Ikerfolk* sozietateko lehendakari eta *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* elkarteko kide da, baita *Jorge Oteiza Fundazioaren* patronoa ere. Era berean, *Eusko Ikaskuntzako* Folklore Saileko lehendakari izandakoa da.